

**2011 urtean elkarte eta irabazi asmorik gabeko pertsonentzako Muskizko San Julián, Kobaron, La Glorieta, Memerea, La Rabuda, La Rigada eta Pobeña auzoetako jaiak antolatzekeo diru-laguntza eskatzeko deialdia.**

### **1. Xedea**

Deialdiaren xedea Muskizko auzoetan urtean burututako jaiak antolatu eta gauzatzeak dakartzan gastuetan atzipen eta emakiden diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da

### **2. Aurrekontua**

Kultura Sailak 25.000 euroko aurrekontua izango du horretarako. hauetatik 24.000 euro urteroko egitarauak antolatzekeo eta 1.000 euro proiektu eta jarduera zehatzetarako direlarik, aipatutakoak kenduta.

### **3. Onuradunak**

Muskizen finkatuta dauden elkarte eta irabazi asmorik gabeko pertsonak dira diru-laguntza hauen onuradun, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratuak egon eta dagokion erregistroetan izkribatuak egonik, Muskizko auzoren bateko jaiak antolatzekeo asmoa badute.

### **4. Bazterketak**

Ondorengo hauek dira diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko direnak:

- a) Deialdia egiten duen Sailarekin zerikusirik edo loturarik ez dutenak.
- b) Beste Erakunde Autonomo edo Udaleko beste Sail batzuen programetan egon beharko liratekeenak. Kasu honetan dagokion sailera edo erakundera bidaliko da eskabidea, interesatua jakinaren gainean jarriko delarik.
- c) Laguntza izenduna xede duten programak eta sail honen barruan beste deialdi batzuetan egokiago leudekeenak

### **5. Aurkeztu beharreko agiriak**

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituztenek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- 1) Deialdi honi erantsita dagoen eskabide orria, behar bezala beteta.
- 2) Jai-egitarauaren kopia edo beronen proiektua.
- 3) Aurreikusitako gastu eta diru-sarreraren aurrekontua, honako gidoiari jarraituz:

Gastuen aurrekontua:

- Hirugarrenari ordaindutako gastuak (zerbitzuak, laguntzaileak).
- Materiala eskuratzea
- Sustapena ( kartelak, programak, iragarkiak...)
- Bestelakoak ( ez dira onartuko inolako menuen gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartu duten eta erakundeaz kanpokoak diren lagunei eskeini zaizkienak izan ezik)

Diru-sarreraren aurrekontua:

- Erakunde eskatzaileak sortutako diru-sarrerak: salmentak, txoznak, zozketak, kuotak...
  - Beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzak
  - Beste batzuk
- 2) Eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte-Segurantzarekin zerga-betebekizunak kitatuta dituelako ziurtagiria. ( **Erantsita dagoen ereduari jarraituz, eskatzaileak sinatutako aitortza onartzen da.**)

- 3) Dirua sartuko den banku-kontuaren fotokopia. Eskatzilea agertu beharko da kontuaren jabe.

Deialdiaren oinarrietan agertzen diren baldintzak beteko ez balira edota aurkeztu beharreko dokumentazioa osorik ez balego, hamar eguneko epea egongo da dokumentazio osoa aurkezteko edota okerrak zuzentzeko. Epe horretan baldintza guztiak beteko ez balira edota dokumentazioa aurkeztuko ez balitz, eskaera deuseztatua izango litzateke.

Nolanahi ere, ekintzei buruzko dokumentazioaz gain, aurkeztutako ekintzen inguruko informazio osagarria eskatu ahalko du Udalak.

## **6. Epeak**

20 egun BAAean argitaratu ondoren

## **7. Balorazioa eta emakidaren irizpideak**

Pertsona edo elkarte eskatzaileek 100 punturainoko puntuaketa izan beharko dute, honako irizpideen arabera:

1. Jaiaren gizarte-proiektzioa, tradizioagatik, gizarte-onarpenagatik, etab. Udalaren irizpidearen arabera (25 punturaino)
2. Aurkeztutako ekintza edo programaren aurrekontu osoa (50 punturaino)
3. Donibane Plazatik auzora dagoen distantzia. Donibane Plaza baita Muskizko jaietako gunea (25 punturaino)

Eskatzaile guztientzat 1000 euroko gutxiengoa jarriko da. Erabil daitekeen gainerako zenbatekoa lortutako emaitzaren arabera, proportzionalki banatuko da.

Salbuespenak: 1.- Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuaren %75ekoa baino handiagoa izan. 2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da Kultura Sailak deialdi horretarako ezarritako kopuruaren %20 baino handiagoa izan. (Kasu bietan behar bezala justifikaturiko salbuespenak egon daitezke. Beti ere Kultura Sailak baloratu egingo du).

## **8. Ebazpenaren jakinaraztea**

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die, emango dien diru-kopurua bankuan sartuko dielarik ondoren.

## **9. Diru-laguntzen justifikazioa eta itzulketak**

Ekintzak, burutu ondorengo 2 hilebeteetan justifikatu beharko dira. Aurretik epe barruan justifikatu gabeko diru-laguntzak dituztenak ez dira diruz lagunduko.

Diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izan beharko da:

1. Gastuen zerrenda, eskabidean agertzen den gidoiari jarraituz aurkeztua.
2. Aipatu gastuen fakturak.
3. Diruz lagunduko den programa edo ekintzaren txostena.
4. Ateratako kartel, eskuorri edo egindako edozein publizitate mota, Udalaren babesa agertzen delarik.

Muskizko Udalak diruz lagundutako elkarte zein pertsoneri behar bezala justifikatu ez duten kopurua eskatuko die.